



Memorial Itzias
Getxo

Memorial Itzias
Getxo

ARAUDIA

2025

DEPORTIVA



1960

1. LASTERKETA EGUNA.

Oroi-lasterketa 2025ko abenduaren 21an, igandea, burutuko da, bertan aurretik dagokien izen ematea egiten duten guztiek korritu ahal izango dutelarik.

2.- 2 LASTERKETA

Itzias Oroi-lasterketa bi lasterketek osatzen dute:

- Bi kilometro dituen, 10:30etan abiatuko den eta lehiakorra ez den testigantzakoa deituriko lasterketa.
- 9 kilometro dituen, 11:00etan abiatuko den eta lehiakorra den Oroi-lasterketa bera

3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan halaxe nahi duen edonork hartu dezake parte, edozein maila, sexu edo nazionalitate izanik, atzerritarrei dagokien Araudi honetako 18 atalak beraieragan eraginik ez badu. Partaideen gehienezko kopurua 3.000 korrikalari da.

Korrikalari bakoitzak bere erantzukizun osoa hartzen du bere gain eta lasterketan parte hartzeko gorputzaldi egokia duela aitortzen du.

4.- MAILAK

Oroi-lasterketan, gizonetzkoetan zein emakumezkoetan, maila hauek egongo dira:

- Absolutua
- Beteranoak, 35 urte edo gehiago beteta dituztenak (1990-12-21an edo lehenago jaioak).
- Sub20 2006 eta 2007an jaioak;
- Sub18, 2008 eta 2009an jaioak;

5.- IZENEMATE EPEAK

Epea Urriaren 1an hasiko da eta abenduaren 18ean amaituko da. Epe honetatik kanpo ez da inskripziorik onartuko, ezta Oroi-lasterketaren egunean ere



6.- IZEN EMATEKO ERAK

ON LINE:

www.getxoatletismo.eus

www.kirolprobak.com

Izen emateak, online soilik egin daitezke eta hauen ordainketa izen ematearekin batera egingo da ordainketa plataforma baten bidez.

9 kilometroko Oroi lasterketan izen - ematen duten pertsona nagusiek eskubidea izango dute Testigantzakoan ere esku hartzeko, lehen lasterketarako ematen zaizkion dortsala eta txipa erabiliz.

Testigantzako lasterketan esku hartu ez ezik, kamiseta teknikoa opari jaso nahi duten pertsona nagusiek 10€ko inskripzio kuota ordaindu behar dute eta horrek Testigantzakoa zein Oroi lasterketa korritzeko baimena emango die.

7.- ORDAINKETAK

Testigantza: Doakoa.

Oroimenezkoa: 10€, txipa duen dortsala eta oparia jasotzeko eskubidea izango dituztelarik.
Izen-ematea gauzatu ondoren ez da inolaz ere dirurik itzuliko.

8.- DORTSALEN BANAKETA

Dorsalak Fadurako Tiki Tokian hartuko dira, igerilekuetako eraikinaren sarreran, hurrengo egun eta ordutegian:

- Abenduak 19 Ostirala (19 de diciembre): 18:00-20:00
- Abenduak 20 Larunbata: 11:00–13:00 y 18:00-20:00
- Abenduak 21 Igandea: 9:00-10:30.

Dorsalaren erabilera derrigorrezkoa da



9.- OPARIAK

Testigantzako 16 urte baino gazteagoentzako garaikurra.
Oroi-lasterketako partaide guztientzat Buff bat

10.- SARIAK (GIZON ETA EMAKUME)

Errekorra:

600€ errekorra gaindituz gero

GIZONAK:

EMAKUMEAK:

11.- GARAIKURRAK

Oroi-lasterketa amaitu ondoren honako garaikurrak banatuko dira

TROFEOS

	Juvenil		Junior		Absoluto	
1º Puesto	Masculino	Femenino	Masculino	Femenino	Masculino	Femenino
2º Puesto	Masculino	Femenino	Masculino	Femenino	Masculino	Femenino
3º Puesto	Masculino	Femenino	Masculino	Femenino	Masculino	Femenino

MEDALLAS

Subida Ayuntamiento			Clasificación por Equipos			
1º Puesto	Masculino	Femenino	1º Puesto	Masculino	Femenino	Mixto
2º Puesto	Masculino	Femenino	2º Puesto	Masculino	Femenino	Mixto
3º Puesto	Masculino	Femenino	3º Puesto	Masculino	Femenino	Mixto

12.- UDALETXEKO IGOERAREN SARIA

Udaletxearen igoera, Zugazarteko azken semaforotik, udaletxea igaro ondoren dagoen semafororarte, ia km bateko igoera, ikusiko dugu nor den arineana

Sari hau jasotzeko, derrigorrezkoa da lasterketa bukatzea



1960

13.- TALDEKAKO SAILKAPENAK

Atletismoa banakako kirola da, baina taldekakoa ere bada!!
4tik 6 pertsonetako taldea egin, zuen izenarekin
Lehenengo 4 pertsonen puntuatzen dute, bakoitzaren postua batzen
Irabazlea puntu gutxien lortzen dituen taldea da.
Taldea Mixtoentxako gixienez neska bat puntuatu behar du.

BALDINTZA OROKORRAK

- 14.- KRONOMETRAJE ELEKTRONIKOA. Kronometraje elektronikoa irteera eta amaierako kontrola daraman txip baten arabera egingo da eta Oroilasterketako partaide guztiek dortsalaren barruan eraman beharko dute.
- 15.- Lasterketan zehar dortsala kamisetaren aurrealdean eraman behar da, ondo ikusten delarik eta tolestatu gabe, epaileen eta antolatzaileen lana errazteko.
- 16.- Izen-eman gabe lasterketaren batean esku hartzen duten orok bere ardurapean egingo dute eta ez dute ez saririk ezta oparirik ere.
- 17.- Antolatzaileek berariaz onartu ezean, ezein ibilgailuk (bizikleta, motozikleta, kotxea, e.a.) debekatuta du lasterkariei laguntzea.
- 18.- Lasterketaren antolatzailea den Getxo Atletismo Taldeak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartzen lasterketa honetako partaideek nozitu ditzaketen min fisiko edo moral, kalte edo minekiko, eta ezta ere gaixotasun ezkutatuak, zuzenbideak, arduragabekeriak edo legea ez gordetzeak eta abarrek sortarazi ditzaketen gaitzekiko.
- 19.- Parte-hartzaile guztiak Erantzukizun Zibileko aseguru poliza batez babestua egongo dira, ondoko kasuak izan ezik: pairamen sor baten ondoriozkoak, zuzenbideak, legea ez betetzea eta abarrek. Kanpoan utziko dira baita ere proba egingo den tokitik edo tokirainoko desplazamenduetan eman daitezkeen kasuak.
- 20.- Oroilasterketako lehiaketa proban Kirol Baimenik gabe parte hartuko duten atletentzat Istripu Aseguru bat egongo da, zeinak kirol istripu baten ondoriozko kalteak babestuko dituen, beti ere, istripua pairamen sor baten ondoriozkoa, zuzenbideak, legea ez betetzea eta abarrekoa ez bada.
- 21.- Erakundeak ez ditu bere gain hartuko parte-hartzaileek beraien artean zuzenbideak ezaz edo arduragabekeriak sortutako kalteak.
- 22.- Parte-hartzaileak bere ardurapean adierazten du, proba baldintza egokienetan egiteko moduan dagoela esaten duen osagile-azterketa egokia egin izana, erakundea ardura horretatik kanpo utziz.
- 23.- Probaren zehar ezbeharren bat gertatu ezker, beraren berri antolatzaileari emateko epea sei egunekoa da, 2024ko abenduaren 21 igandea ezkerotik.
- 24.- Ezinbestek beharturik proba bertan behera utzi beharko balitz, izen ematearen dirua ez da itzuliko. Hilabete baten buruan egiten ahalginduko gara, eta posible ez balitz, parte-hartzaile guztiei proba horretarako prestaturiko kamiseta emango zaie Getxon.



25.- ADINGABEKOEN PARTAIDETZA

Itziar Lopez de Uralde Otoi-lasterketako adingabeen inskripzioa bere gurasoetako batek edo tutoreak egin behar du, eta honek:

I. 2025ko abenduaren 21an burutuko den lasterketan bere seme/alabak edo tutoradoak parte hartu dezan nire oniritzia eta baimena ematen du.

II. Lasterketaren araudia ezagutzen eta bere osotasunean onartzen du, behar diren aroetan adingabearen izenean onartuz.

III. Bere seme/alabak edo tutoradoak baldintza fisiko egokiak dituela, ekintza honetan bere borondatez parte hartzeko nahiko entrenatuta dagoela eta parte hartze honekin larritu daitekeen edo bere osasunari larriki kalte egin diezaiokeen min edo gaixotasunik ez duela badaki.

IV. Berak egoki jotzen duen enpresarekin ardura zibilaren segurua kontratatu dezala baimena ematen die antolatzaileei, bertan, beharrezkoa baldin bada, bere seme/alaba edo tutoradoa aseguru bezala agertu daitekeelarik, honela parte hartzen duen ekintza fisikoaren ondorioz jasan ditzakeen kalteei kobertura emanaz.

V. Aipatutako araudiak aurreikusten duenaren arabera, GETXO ATLETISMO TALDEAri edo honek baimendutako hirugarren bati onartzen die bereziki lasterketan zehar adingabeari argazki edo bideo euskarrietan egin diezazkioten irudien erabilera, denbora eta lurralde aldetik batera mugarik gabe eta inolako ordainik gabe, on-line eta off-line komunikabideetan erabili ahal izateko, gizarte-sareetan barne, dibulgazio helburuekin eginda.



1960

26.- IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGAPENA

Partaide guztiek, izen ematearekin batera, bere oniritzia ematen diote Getxo Atletismo Taldeari, honek, berariaz edo beste entitate baten bidez, izaera pertsonala duten beren datuak informatikoki eta bere irudia lasterketako argazkien, bideoen edo antzeko medioen bidez erabili ditzan, soilik kirol, sustapen edo merkataritzaren izaera duen helburuz, hori dena pertsonal izaera duten datuen babesaren Abenduaren 13ko 15/1999ko Lege organikoaren arabera. Partaideak fitxategi hauen egoera jakiteko eskubidea burutu lezake eta bere edukia berretsi edo zati batean edo osoan kendu arazi. Eskubidea gauzatzeko idatziz eskatu beharko dio Getxo Atletismo Taldeari frogaren emailen bidez: memorial.itziar@gmail.com

27.- ATLETA ATZERRITARRAK

Itziar Lopez de Uralde Oroï-lasterketa Atletismo Federakundearen 2025 Denboraldiko Arautegiaren esanetara burutuko dela kontuan harturik, lasterkari atzerritar federatuek ezin hartu lezakete parte, Arautegi horretan aipatzen diren kasuetan izan ezik.

28.- ARAUDIAREN ONARPENA

Partaide guztiek, izen ematearekin batera, XL. ITZIAR OROÏ-LASTERKETAREN arautegi hau, eta Antolatzaileen zein Getxoko Udaltzainen aginduak onartzen eta betetzen dituztela aitortzen dute.